

AUMATEGI

“Demokrazia batean adostasuna ez da funtsezkoa;
partaidetza bai” GENE BROWN



BARRUNDIAKO EZKER ABERTZALEAREN BALANTZEA

Urte bete baino gehiago pasa da udal hauteskundeetatik eta, udan, “kurtsu” bat amaitu eta berri bat hasten denez, garai egokia da orain arte egindakoaren eta egiteke utzitakoaren balantzea egiteko.

Alabaina, interesgarria iruditzen zaigu 2007ko maiatzaren 27ko udal hauteskundeen emaitzak gogoratzea, aukera politiko bakoitzak atera zuen ehunekoa kontuan hartuta, guzti hau hobeki baloratzeko. EAJ-k bere gehiengo absolutua nola erabiltzen duen ikusita, are egokiagoa izan daiteke.

2007ko udal hauteskundeak				
	BOTOAK	Portzentaia (boto baliagarrien %)	Portzentaia (zentsuaren %)	Zinegotziak
EAJ	186	% 41'43	% 26'99	4
EAE-ANV (ezker abertzalea)	157	% 34'97	% 22'78	3
PSE-PSOE	43	% 9'58	% 6'24	0
PP	42	% 9'35	% 6'09	0
Ezker Batua	21	% 4'68	% 3'04	0
Hautagai-zerrendei botoak	449	% 100	% 65'16	
Txuriak+baliogabeak	7		%1'01	
Emandako botoak	456		%66'18	
Abstentzioa	233		%33'82	
HAUTESLEAK	689		%100	

Ezker abertzaleko ordezkarien ekimenek helburu eta erreferentzia argiak dituzte. Erreferentzia hori, hauteskundeen aurretik barrudiarrei aurkeztutako HERRI PROGRAMA da, eta hor ageri diren puntuetan jasotzen dira gure helburuak. Herri Programan agertzen ez diren kontuetan, ikuspuntu abertzale eta ezkertiar batetik, kordea galdu gabe, ikusten ahalegindu behar dugu.

Hemen, egindako proposamenen, martxan jarritako ekimenen eta Barrundiako Udalean ezker abertzaleak izandako jarrerren laburpen bat egiten saiatuko gara:

INFORMAZIOA

- ✓ Momentuz gaia albo batera duten arren, Udal Web-gune bat egiteko asmoa dago. Baldin eta 13 Kontzejuetako Administrazio Batzarrentzako baliagarri izan badaiteke, biztanleentzako zerbitzu bat eskaintzen badu, parte hartzea bultzatzeko modu bat baldin bada, eta euskararen erabilera eta normalkuntzaren alde egiten badu, baietz esaten diogu.
- ✓ Alkateak eta zinegotziek kobratu dutena publiko egitea proposatzen dugu eta onartu egiten da.
- ✓ Informazioa zabaltzea eta kobratutako diru-sarien justifikazioa publiko egitea proposatzen dugu. **-EZ ONARTUA-**
- ✓ AUMATEGIren bidez posta-elektronikoz Udaleko osoko bilkuren aktak eta deialdiak bidaltzen ditugu.

PARTEHARTZEA

- ✓ Osoko bilkuren maiztasunari dagokionez gero eta eskasagoa da egoera: Hilean behin egitetik hilabete eta erdira pasa zen. Gure proposamena hilero egiteari eustea izan zen, eta arratsaldeko ordutegia erabiliz, nahi duten herritarrei bilkuretara joatea errazteko. **-EZ ONARTUA-**
- ✓ Informazio Komisioak irekiak eta partehartzeko modukoak izatea proposatu genuen **-EZ ZEN ONARTU-**. Orain arte bezala edozertarako Komisio bakarrarekin jarraitzen dugu, osoko bilkuran landuko diren gaiak aldeztu aurretik prestatzeko, eta gainera, ateak itxita.
- ✓ **BAKEAZ** kontratatzen dute herritarren partehartzeari buruzko azterketa bat egin dezan. Herritarren partehartzearekin erabat ados egonda ere, abstenitu egiten gara, ez zaigulako egokia iruditzen azterketetan dirua gastatzea berez dauzkagun aukerak behar bezala baliatzen hasi aurretik.

KONTZEJUEKIKO HARREMANAK

- ✓ Urteroko bileran, aurrekontuak onartu aurretik Administrazio Batzarrekin biltzea proposatu genuen, beraien proposamenak kontuan hartu daitezzen. Ez zen ezer erabaki honi buruz.
- ✓ Artxibariaren dedikazioa igotzea proposatu genuen, Administrazio Batzarrei ere lagundu ahal izan diezaion. Kontua ez aurrera eta ez atzera geratu da (Udalak Koadrilako kontua dela dio, eta Koadrilak Udalak eskatu behar duela)
- ✓ Bideen konponketa-lanei dagokionez Udalaren finantziarioari dagokion portzentaia igotzea proposatu dugu **-EZ ONARTUA-**
- ✓ Oztopo arkitektonikoak kendu nahi dituzten Administrazio Batzarrei diru-laguntzak emateko proposamena **-EZ ONARTUA-**
- ✓ Ezaugarri Berezitako Ondasun Higiezinaren Gaineko Zergaren bilketa -orain arte kobratzen ez zena- Kontzejuei ematea proposatu dugu **-EZ ONARTUA-**

GAZTERIA

- ✓ Barrundian Gazte Eguna ospatzea proposatu genuen, eta horrela adostu zen, - nahiz eta gero aurrekontuan eskas geratu diren-. Udalerriko gazte ugari elkarlanean aritu dira, Udalaren laguntzarekin, egun hori antolatzeko. Irailaren 27an izango da.

HEZKUNTZA

- ✓ Matrikulazio garaian ez da kontuan hartu D Ereduaren aldeko kanpainarik egitea. Udalak dio, ez omen dela bere zeregina.

GIZARTE GAIK

- ✓ Laster jarriko da abian ezker abertzaleak proposaturiko laguntza teknikoaren mailegu zerbitzua.
- ✓ Hirigintza lanetan Irigarritasun Legea betetzeko proposamena onartzen da, oztopo fisikoak eta komunikaziokoak kentzeko.
- ✓ Ibilgailuen Gaineko Zergan eta OHZ-n familia ugarietarako hobera % 75erarte igotzea adostu zen.
- ✓ Tasa ezberdinetan errenta baxuena dutenei hobera ematea proposatzen dugu **-EZ ONARTUA-**.
- ✓ O.H.Z-ri dagokionez ere, errenta baxuenei hobera ematea proposatzen dugu, erreferentzia bezala "pobrezia mugatu" hartuz. **-EZ ONARTUA-**
- ✓ Eraikuntza, Instalazio eta Obren Gaineko Zerga, eraikuntza-mugak kentzeko diren lanetan bertan behera uztea proposatzen dugu. Onartzen da.
- ✓ Barrundiari dagokionez, Gizarte Langilearen ordutegia zabaltzea proposatu dugu. **-EZ ONARTUA-**
- ✓ Ikastolako jantokia orain artean bezala kudeatzen jarraitzeko proposamena, menua bertan prestatu eta inguruko produktuak kontsumituz **-EZ ONARTUA-**

KULTURA ETA KIROLAK

- ✓ Udal kiroldegia margotzeko proposamena babestu genuen, baldintza bezala txuriz margotzea jarri. Horrela egin zuten.
- ✓ Natur ingurunearen zabalkundearekin loturiko ekintzak ere diruz laguntzea proposatu genuen. Onartua izan zen.
- ✓ Euskaraz egiten diren ekintzak %100ean diruz laguntzea proposatu genuen **-EZ ONARTUA-**
- ✓ Antolatutako hainbat ekintzetan izena ematen dutenei tasak ez gehitzea proposatu genuen **-EZ ONARTUA-**

- ✓ 12 urtetik 16 urtera bitarteko gazteentzat udako ekintzak burutzea proposatu genuen. Beste urteren baterako uztea erabaki zuten.

EUSKARA

- ✓ Apirilean, bi udal taldeek adostu bezala, Euskara Teknikari bat hasi zen berriz ere lanean gure Udalean. Bere lehen helburua Euskara Normalkuntza Plan bat burutzea izango da.
- ✓ Langabetuei, euskara ikasteko %100eko diru-laguntza ematea proposatu genuen, ikastaro horiei behar besteko probetxua atera ezker, behinik behin. **-EZ ONARTUA -**
- ✓ Euskara ikasteko bekei aurrekontuari dagozkien izendapenean mugarik ez jartzea proposatu zen. **-EZ ONARTUA-**.
- ✓ Diru-laguntzak banatzerako orduan, baldintza bezala kultura eta kirol ekintzen zabalkundean bi hizkuntza ofizialen erabilera jartzea proposatu genuen. **-EZ ONARTUA -**. KZgunean ordenagailu bidez euskara ikasi ahal izateko Euskaltegiekin hitzarmenak egitea proposatu genuen **-EZ ONARTUA-**. Hala ere, ekintza hau programan ageri da.
- ✓ Mendixurreko “Del Molino” [“Errotalde”] kale berriari euskarazko izendapena ematea proposatu genuen. Onartua.

HIRIGINTZA

- ✓ Hiri Antolamenduko Arauen aldaketa partziala proposatu genuen SAUR delakoak (lurzoru hiritargari, baina ez hiritarra) hirigintza planetik kentzeko - urbanizazio handiak-. **-EZ ONARTUA-**
 - ✓ Urbanizazio eta eraikuntzetan eragiten diren kalteei eta hauek konpontzeko bideari buruzko proposamen bat burutu genuen (hirigintza sustatzaileei zuzenean konponaraziz, edo Udalari eragindako gastua ordainaraziz). **-EZ ONARTUA-**
 - ✓ Erreka eta ibaiei buruzko Lurraldearen Arloko Planari alegazioak. Aho-batez adosten da Barrundiako herrien uholde arriskuei buruzko ikerketak eskatzea.
- Lehen sektorea:**
- ✓ Udalaren jabetza diren bazka-larreen ustiapenak lehiaketara atera aurretik UAGArri irizpideen balorazio bat eskatzea proposatu dugu. Ez da oraindik erabaki.

INGURUGIROA

Zentral Eolikoa:

- ✓ 2007ko abuztutik erantzuteke dugu “afekzioarengatik” ordaintzen den kanonaren zergatia, ustez beste lurjabeei emandako baldintza hobeen ondorio dena. 2008ko abuztuan, Gipuzkoan aerosorgailu kopuruaren arabera kobratzen dena baldintza berdinetan jartzea proposatu dugu. **-EZ ONARTUA-** Eólicas de Euskadiren erantzunaren zain geratzea erabakitzen dute.
 - ✓ Kanonak hobetu daitezten eta Eolicas de Euskadiren pribatizazioaren aurka agertzea proposatu genuen. **-EZ ONARTUA-**. Handik denbora batera berriz aztertu zen gaia Administrazio Batzarretako presidentek sinatutako antzeko eskari baten aurrean, baina dagoeneko epez kanpo geunden pribatizazioaren aurka azaltzeko.
 - ✓ Heredian haizea neurtzeko dorre bat ezartzearen kontra agertu ginen, eta espero dugu zentral eoliko txiki bat eraikitzeko bidea ez izatea.
- Hondakinak eta birziklapena:**
- ✓ Konpostajearen ezarpena onartua. Ezarpena burutu aurretik ikastaroak antolatuko dira aurki. Aldundiak inausketa hondarrentzako edukiontzi bat jarriko du.
 - ✓ Edukiontzien euskarriari diseinu estetikoago bat emateko proposamena egiten dugu. **-EZ ONARTUA-**
 - ✓ Martxan jartzen da hondakin solido berezien bilketa, hilabeteko lehen ostiral eta larunbatetan. Gehiengo duen udal taldeak ez du uste kontzientziatzea bere zeregina denik.

Horretaz gain:

- ✓ EAE-ANVko taldearen bidez, birritan egin dugu Batzar Nagusietan Elgeako mendilerroan pinuak landatzeko egindako baso-soiltzeen arrazoiari buruzko galdera. Nekazaritza Saileko Foru Diputatuak berriz ez gertatzeko konpromisoa hartzen du. Elorduizabalako Komunitateko landaketa baten harira, bertan egindako baso-soiltzeak ere salatu ditugu.
- ✓ Herritarrak kontzientziatzeko helburua gure egin eta Ingurumeneko Hezkuntza programa bat bultzatzea proposatu genuen. **-EZ ONARTUA-**
- ✓ Gasteiz/Castejón/Muruarte 400kv-ko tentsio altuko linearen aurka agertzea proposatu genuen. Mendialdea eta Lautada gurutzatuz, ingurumenari kalte handiak eragingo dizkiola uste dugulako. **-EZ ONARTUA-**

ETXEBIZITZA

- ✓ Etxebizitzari buruzko inkesta bat egiteko aurrekontu-atal bat izendatzea onartu zen. Oraindik ez da gauzatu eta hilabeteak daramatzagu etxebizitzaren gaia aztertzeko bilera baterako deiaren zain.
- ✓ “Hirigintza Aprobetxamendua”, gaur egungo baremoak erabili ordez, merkatuko balore errealean arabera kobratzea proposatzen dugu (gaur egungo irizpideen arabera askoz gutxiago kobratzen da.). **-EZ ONARTUA-**

GARRAIO PUBLIKOA

- ✓ Gasteizko geltokien elkargune edo geltoki intermodalaren sorreraren inguruan, Abiadura Handiko Trenaren kontra eta herrietatik datozen autobus linea ororentzat hiriaren erdialdean geltokiak jartzearen alde agertzeko proposamena egiten dugu **-EZ ONARTUA-**.

BESTELAKO GAIAK

- ✓ Udal talde nagusiko zinegotziek ez dute ematen Udalbiltzako auzipetuen aldeko atxikipenik. Ez zuten zinatu nahi antolatutako atxikimendu kanpainan.
- ✓ Urtean 3 egun esanguratsuenetan, gutxienez, ikurrina Udaletxeko balkoian jartzeko proposamena egiten dugu. **-EZ ONARTUA-**.
- ✓ EAJ-k diru-sarien igoera onartzen du, gure aurkako jarrera izan arren. Alkateak lan arrazoiak direla medio (aurre-erretiroa) liberazio partziala bertan behera uzten du.
- ✓ Udal taldeei, zinegotzi bakoitzeko 100 euroko asignazioa ematea onartzen da, gastuei aurre egiteko, baina handik gutxira, Garzonen Autua dela eta, bertan behera geratzen da.

HORRETAZ GAIN

- ✓ **Udaletxeko hesietan kartelak:**
Hesietako karteldegia berrantolatzea proposatzen dugu, kartelentzako lekua uzteko. **-EZ ONARTUA-**. EAJko udal taldeak 2 karteldegitan 2.784 euro gastatzea erabakitzen du (karteldegi horietan oso kartel gutxi sartzen dira eta ez dira ikusten sarreratik urrunegi daudelako).
- ✓ **Diario de Noticias. Harpidetza:**
Harpidetza hori bertan behera uztea proposatzen dugu. **-EZ ONARTUA-**
- ✓ **Informatzeko egutegia:**
Informaziorako udal egutegia egitea proposatzen dugu. Aurrekontu izendapena onartzen da eta gauzatuko da.
- ✓ **Vital Kutxako bulego ibiltaria:**
Aho-batez erabaki ondoren, Udalak zerbitzu hau berrezartzeko eskaria egiten du.
- ✓ **Iduia Jauregia:**
Ahalik eta diru-laguntza gehien lortzen saiatzearen aldeko botoa ematen dugu. Proiektu eta adjudikazioen inguruko bozketetan abstenitu egiten gara, Iduiako jauregiari dagokion guztia eztabaida eta partehartzerik gabe gauzatu baita, EAJren iritziak bakarrik kontuan hartuz.
- ✓ **Medikuaren kontsulta ordutegiaren murrizketa.**
Kanpaina bat martxan jartzea erabaki genuen Medikuaren kontsulta ordutegia erdira murrizteko asmoaren berri eduki bezain laster, eta jendea kezak aurkeztu eta protesta egitera animatu genuen. Horri eta Udalaren kontrako jarrerari esker, lehenago genuen ordutegia berreskuratzea lortzen da.
- ✓ **Hainbat mozio:**
Euskal Herriaren eta guztientzako baldintza demokratikoen aldeko mozioa (18/98 epaiketaren harira). **-EZ ONARTUA-**.
- ✓ Torturaren eta dispartzioaren kontrako mozioa. **-EZ ONARTUA-**
- ✓ Herrien autodeterminazio eta independentzia eskubidearen aldeko mozioa. **-EZ ONARTUA-**.
- ✓ Amnistiaren Aldeko Mugimenduko epaitutakoen aldeko elkartasun mozioa. **-EZ ONARTUA-**.

*Hemendik aurrera, ilegalizazio eta oztopo ororen gaintik,
ezker abertzaleak lanean jarraitu behar du. Barrundiako jendeak ere
lan horretan laguntzeko aukera paregabea dauka proposamen eta ekarpenak eginez.
Horretarako beldurrik gabe helarazi zuen ideia eta
proposamenak, eta geuk, hauek aztertu, behar den lekuan aurkeztu eta bultzatzeko
konpromisoa hartzen dugu.*